

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Hilerriak onik zaintzeari dagokion tasaren 2025eko errolda fiskalak jendaurrean jartzea

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2 artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo dira jendaurrean jarrita hilerriak onik zaintzeari dagokion tasaren 2025eko errolda fiskalak, San Martineko udal bulegoetan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea —, haiek aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeke erre-kurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa hori ordaintzeko epea 2025eko martxoaren 14tik maiatzaren 14ra artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 9an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO